

ARA MALIKIAN BIOLINAREN JEINUAREN KONTZERTUA DATORREN EKAINAREN 6AN EUSKALDUNAN

Ara Malikianek 2020an sortutako “Petit Garage” ikuskizuna eskainiko du, pandemiaren eta eraldatzeko beharraren ondorioz “Royal Garage” bira bertan behera utzi behar izan ondoren. Lan klasiko eta konposizio propioak errepasatuko ditu, Ivan “Melón” Lewis pianistarekin batera

Ikuskizun horretan protagonista bakarra ez da musika izango, baita pertsonak, sentimenduak, ere

Bilbon, 2021eko apirilaren 21ean

Ara Malikian, jatorri libanoarra eta arbaso armeniarrek dituen biolin-jotzaile espainiarra Euskaldunan izango da ekainaren 6an. Kontzertu bakarra izango da, 19:15ean, eta artistak biolinaren lengoia irauli duen bere estiloarekin gozaraziko ditu entzuleak. Bere positibotasuna eta bizitza ulertzeko modua Euskaldunako agertokira helduko dira.

Ara Malikian eta Ivan “Melón” Lewis pianista Euskaldunan izango dira ekainaren 6an, “Le Petit Garage” ikuskizunarekin, pandemia jasaten ari den mundu batean egindako biran zuzenean grabatutako diskoarekin. Mundu mailako pandemiak sortutako ekaitzaren ostean 2020an sortutako apustuak 60 herrialde baino gehiagotan egin beharreko bira gelditzera behartu zuen biolin-jotzailea.

Malikianek berak azaldu duenez, “jarraitu egin behar izan genuen, aurrera begiratu eta erantzukizunean oinarritutako kontzertu egokitu formatu berri bat sortu. Gure “Royal Garage” “Petit Garage” bihurtu zen. Dimentsio txikiagoko ikuskizuna da, leku txikiagoetarako. Bertan, protagonista bakarra ez da musika, baita pertsonak, sentimenduak, aurrera jarraitzeko gogoak, guztiok une honetan batzen gaituena, ere”.

Ibilbidea

Ara Malikian, jatorri libanoarra eta arbaso armeniarrek dituen biolin-jotzaile espainiarra da, 1968an jaioa eta Madrilen bizi dena.

Ara Malikianek 40 disko baino gehiago grabatu ditu, bere orkestra sortu du eta ikuskizun asko eta askoren ekoizpenean hartu du parte. Bere azken bira biek, "15" eta "The Incredible World Tour of Violin", nazioartean proiektatu dute, munduko hiriburu garrantzitsuenak bisitatzera eramanez: Londres, Paris, Erroma, Mosku, Buenos Aires, Mexiko Hiria, Lima, Santiago de Chile, Pekin, Hong Kong, Istanbul, Belgrad, Bratislava, Madril, Lisboa, Berlin...

Sarrerak www.euskalduna.eus webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan eros daitezke datorre astelehenetik, apirilaren 26tik, aurrera. Prezioak: 60 eta 70 euro (kudeaketa-gastuak barne).

[HD Argazkiak](#)

[Elkarrizketen formularioa](#)